

BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN PERTSONAK LAGUNTZEKO MIKROKREDITUAK

Espediente kodea: MIKR

Zer da? Zertarako da?

Hernaniko Udalak, Finantza Etikoak elkartearekin elkarlanean, gehienez 4.000 euroko eta interesik gabeko mailegua ematea bazterketa arriskuan dauden pertsonak laguntzeko.

Nork eska dezake?

Hernanin gutxienez 12 hilabete lehenagotik erroldatutakoek eta oinarrizko gastu bati aurre egiteko larrialdi egoeran dauden pertsonak.

Aurkeztu beharreko agiriak

-[mikrokredituaren eskaera orria](#)


-errenta aitortpena edo egiteko beharrik ez den kasutan horren ziurtagiria

-jasotzen diren dirulaguntzen ziurtagiria

-jabetzan dituen ondasunen ziurtagiria

Nola eskatzen da?

 **Aurrez aurre:** hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehenetik ostiralera: **08:00 - 14:00.**

 **Internet:** www.hernani.eus web orriaren bidez eskaera-orria bete eta udaletxean aurkez dezakezu.

Zenbat kostatzen da?

Doakoa da.

Prozeduraren epea

Eskaera egiten denetik erantzuna jaso arteko epea hilabete batekoa baina gutxiagokoa izatea aurreikusten da.

Prozeduraren tramiteak

- Eskaerak HHZn jasoko dira, eta kopiaren zigilua jarrita eskatzaileari itzuliko zaio.
- Eskaera guztiekin erregistro berezi bat sortuko da eta horren berri Finantza Etikoak elkarteari emango zaio.
- Eskaeraren datuak egiaztatuko ditu Hernaniko Udaleko Errenta sailak .
- Balorazio soziala egingo da ZERBITZU SOZIALETAN, bazterketa egoera ziurtatzeko eta egiten den eskaerarako dirulaguntzarik existitzen ez dela ziurtatzeko .
- Eskaera guztien artxiboa Finantza Etikoek egingo dute.
- Eskaerak eta txostenak, funtsa honetarako sortutako Batzordeak (Hernaniko Udala, Finantza Etikoak, Stop Kaleratzeak eta Amher) aztertu eta erabakiko ditu.
- Finantza Etikoek jakinaraziko diote erabakia eskatzaileari. Baiezeko erabakiak mikrokreditua emateko tramiteak martxan jarriko ditu; ezezko erabakia emanez gero, horren aurkako errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Finantza Etikoen aurrean. Elkarte horrek erantzungo du.
- 6 hilabeteko epean, balorazioa egingo du Batzordeak, eta horretan erantzundako kasuen, onartutako kredituen eta diru-funtsaren egoera azalduko du.

Oharrak

- Hernani Erabaki prozesuaren barruan jasotako proposamena da; bertan 30.000 euroko funtsa sortzea onartu zen. Helburua da, mailegu txikien bidez, bazterketa sozialera eraman ditzaketen egoerak ekiditea. Ez da dirulaguntza, utzitako dirua itzultzeko bitartekoak jarri behar baitira.
- Gehienez 4.000 euroko mailegua da, eta dirua itzultzeko epea, gehienez, 60 hilabetekoa.
- Mikrokredituak kasu bakoitzean arrazoizkoa izan behar du, zorpetze ratioa ezin da %35 baino gehiagokoa izan.
- Finantza-gestio guztiak Finantza Etikoen bitartez egingo dira, Udalarekin sinatua duen hitzarmenaren baitan.